

+ Anaitasuna

V URTEA - N.º 47

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Aprilla (4) 1958

ITXASGIZONA, EZEZAGUN ORI

Oraindiño ez da ille bete, euskaldun arraintzaleak Dakar-retik etorri direana. Igaro dan illaren 15-ean, goizeko ordu bat et'erdietan sartu zan Bermeo-n, Dakar-rera joaniko azkenengo itxasuntzia.

Berba asko egin da, periodikoetan, erreivistetan, radioan, euskaldun arraintzaleen itxasorate onen gainean. Berba asko, bertori Euskalerrian eta erbestean. Gero ta gero be, asi da gentea gure itxasgizonen gorabehera aintzat artzen. Asi da zeredozer ezagntuten, azaletik bada be, euskaldun arraintzaleen problema garratzak. Arraintzuzko problemak, diruzko problemak, erlegiñozko problemak. Dana problemak. Bai ba, Euskalerrian arraintzalea ezezagunena dalako.

Genteak gitxi daki nor eta zelakoa dan arraintzalea. Ez daki, beste ganza askorei artean, arraintzalea dala bearbada Euskalerriko euskaldunena. Parkatu deistela baserritarrak. Arraintzaleen euskalduntasuna dinamikoagoa da. Baserritarrena barriz, estatikoagoa. Ta momentu onetan, peligru aundiko sasoi onetan, gure euskalduntasuna salbetako, geien geien dinamismoa bear dogu.

Arraintzaleen barruko indar ori, benetan, guztiz aundia da. Edonori arritu eragiteko modukoa. Lastima aundia, sarri askotan alperrik galtzen itxi dogula.

Orañarte baiño leku zabalagoa emon bear jake arraintzaleeri gure erriko gauzetan. Euskerazkoetan, sasoi onean gagoz oraindiño,

ze gure itxasertzeko portuetan gure berbetea zaarra bizi bizirik dago, sendo dago, ondo armaturik dago. Eriegiñozko gauzetan barriz, ez ete gara beranduegi eidu?

Aspaiditik dakigu, Euskalerriko portu batzuk gaur egunean eriegiñozko krisi aundi bat igaroten dabeia, eta gauzak txarrerantz doazala. Krisi orren kausak, asko dira. Emen ez dankogu zetan aitatu bear danak. Gaur naikoa izango da bat bakarrik gogora ekarrea, ainbat ariñen erremedioa bilitatu daiguntzat.

Gure itxasertzeko portuetan, batzuetan beintzat, arraintzalea ezezaguna iez bizi da bere parrokiari. Esan leiteke, gure eieizak legortarrentzako bakarrik egiñak direaia. Eurentzako sermoiak, erderazkoak geienak. Eurentzako «*Círculos de Estudio*» deritxoenak, onek be erderazkoak. Eurentzako parrokiako aktividade guztiak. Eurentzako kulturazko ekintzak, orfeoia, koruak eta abar.

Orregaitik, arraintzalea, kempotar bat bailitzan egoten da eieizan eta eieizako gauzetan. Eta andik urteten dauanean, zeredozer daroa bere barruan. Bearbada bera be ez da konturatuten zer dan. Guk ba-dakigu. Ez dau aurkitu bere parrokiari, bere eieizan, bere anaia legortarren artean, berak bear dauan berotasuna, bereratasuna, alkarrezagutzea.

Oian ez da arritutckoa, arraintzalea gero ta geiago eieizatik eta eriegiñotik urrunduten bada, asagotuten bada.

Berriatua

Erri baten nortasuna

Bizkaiko erri baketsu baten nago, eguneko ordurik geienak beteten. Erri aundi baketsua bai; baiña, beste Bizkaiko asko lez, euskal zaletasuna edo euskera zaletasuna beintzat galtzen doana.

Goiz baten, irrintzi baten oiartzunak itxartu nendun. Irrintzi arek berrogei, eun, berreun irrintziren erantzunak euki zituan. Danbolin soiñua, euskal abesti alaiak, zaratea ta zaratea... Baiña... zer gertatzen da gaur erri onetan? galdetu neutsan neure buruari.

Bermeo! Bermeoko umeak ziran. Itsasertzeko neska-mutillez bete zan gure erria, euren biotz ederren garbitasuna ta poztasuna erakutsiz.

Au ikusita, abesti ain gozoak entzunda, alaitasunak eta erri-miñak bate-batera bete dau nire barrua.

Sarritan entzango zendun, irakurle maitea, Bermeoko euskerea mordoilioa dala, bermotarrak erdi zoroak dirala... Ez egin kasurik! Nik ordun lez, berreun edo irureun ume euskeraz berbetan entzun ezkeru, euren begi ederretan barruko ontasun guztia azaltzen ikusi ezkeru, ez dozu Bermeoko erria zoroa ta galdua danik esango, ez. Bermeok bere nortasuna edo personalitatea dauko, itxasertzak emoten daben euskal nortasun sendoa.

Baiña poztasuna ta erri-miña batera sortu dirala neure barruan esan dot, eta egia da. Len esandako gertacrak alaiarriak badira, gure erriak daukozan kezka ilundu egiten dabez gure etorkizunerako bideak.

Bai, jauna. Euskalerraren nortasunak baratz ederrean dauko lurpetuta bere sustriak. Baiña kaltegarritzko bedartzak bere bai. Norbererekiak, erdal zaletasunak eta diru zaletasunak euren adar tartean korapiloturik daukez euskal biotz asko. Irurak txarrak badira, irugarrena txarrena, nire

ustez. Diru zaletasunak ekarten dauz beste biak sarri askotan. Diru zaletasunagaitik pleitutan sartuta ikusiko dozuz gure baserritar asko ta asko. Zaletasun madarikatu orregaitik gure erri askotako gazteak, sorlekua abandonaturik, Ameriketarako itxasbidea artuko dabe.

Euskalduna egoakaz jaioten dala, maletak eginda eukiten dabezala, ta beste oiako asko entzun dogu gure oraindik bizi laburrean. Baiña, nire ustez, eta parkatu oker banabil, atxakiak baiño ez dira; gure nortasunak daukon zaletasun txar au ixilpetu ta gorde-teko atxakiak baiño ez.

Oraindiño egun asko ez dala, Caracas-tik artu neban karta luze bat. Nire aintxiñako lagun batena zan, eta negargarria. Venezuela-n asko ta asko dira galduta bizi dirau euskaldunak; atzera sorterrira etorteko arpegirik ez, eta bertan biziteko modurik ez daukenak; auxe da euskaldun askoren ego-kera mingarria. Gure erriko agintariak artu bear leukee gure anaiok gureganatuteko arazoa, eta agindu edo eskiñi eureri lagun-tasuna.

Baiña, irakurle, parkatu; nun asi ta nun amaitu ez dot jakin idazlantxu au. Gaia bermotarrak emon deuste, eta Caracas-ko kanpotar bategana eroan nau iparraizeak.


Gure itxas-ertzeko gizonak beste kezka asko eukiko dabe; baiña, nire uste apalean, diru zaletasuna ez da arraintzalearen pekaturik aundiena. Dagoanean jo ta ke, ta ez dagoanean kito. Baiña pobretasunak eta go-seak gitxitan eukiko dabe indarra, gure arraintzaleak sorterrira itxi, gure berbetea eta oiturak galdu eta betiko gure ondolik aldunduteko.

Gora gure itxas-ertzeko erriak!

Mungitik

Bilbotar

MUNDUAN ZEAR



SEKULAKO BAUTISMOA

Beargin baltz batzuk basoan lan egiten egozala —diño Aita Devalle Nyeri-k, Afrika Ekuatorialeko misionerua—, rinozeronte bat agertu jaken asarre bildurgarriari. Gizonak, leenengo ikarea pasatuta, armak eskuan arturik, bala batzuk sartu eutsezen barruan. Piztiak orduan igesari emon eutson solorik solo, zaurietarik odola galtzen ugari. Azkenean jausi zan lurrera, geiago ez jagiteko. Baiña jausita gero be, ikustekoa zan bere furia mustur gaiñeko adar bakararen movimentuakaz. Mutil bardingo bat larregitxu urreratu jakon ondora. Eta alako baten piztiak bere azkenengo indarrak batu ta atara, ta zartada baten adar bakarra sartu eutson mutikori alde batetik bestera.

Inguru aretako misionerua, au entzunda, arin joan zan bertara. Ezagutu eban mutikoa: bere katezismoko ikaslerik zintzoenetakoa zan, laster bateo santua ta beste sakramentuak artzeko preparentan egoana. Ekarrri eban ura ta, beste barik, bekokia busti ta esan eutson: Nik bateatuten zaitut Aitaren eta Semcaren eta Espiritu Santuaren izeanean. Mutilla polito polito adarretik atara, ta bearen gaiñean ipiñi eban; baiña beste gauzarik egiteko ez eban astirik emon.

JAZOERA IKARAGARRI TA ALAISARRIA

Doktor. Santarelli, Mexico-n, Celaya deritxon erritxu bateko medikua da. Gaztea. Leberra. Eta bere eginbearretan esku onekoa. Osorio boxeadoreari

operaziño bat egin eutson begietan. Ederto egin eta ondo urten. Klinikari, ia osatuta egoala, burutik eginda, neska gaixozaiñari joten asi jakon. Au ikusirik, medikua neska errukarria defendietako etorri zan; baiña orduan Osorio-k medikuari elduta, atzamarrakaz begi biak atera eutsozan. “Ez deustat demandarik ipiñiko egin deustan kalte onegaitik” —esan eban medikuak bere zoritxarraren aurrean. Eta bere ezkongei gazteak bere aldetik: “Leen asko maite izan dot Santarelli. Orain leen baiña askoz maiteago”. Munduko aibeste zikinkeri artean, olako egitada ederrak zelan nasajtu ta poztuten daberen gure biotza!

MILAN-GO MISIÑOAK

Italia-ko Eleizearen historian gogoangarri izango dira, igazko udagoienez Monseiñor Montini-k, Milan-eko artzobispoak, atondu izan dituan misiñoak. Lombardia-ko urri andi orretan, milla ta irureun misiñolari (1.300), euren artean obispo asko, ibilli izan dira kaleetan zear, batera ta bestera, misiñoak prediketako prest. Oraindiñokarren inoiz ikusi ez dan neurrian erabili dira periodikoak, radioa, telebisiñoa ta propaganda modu guztia, misiño ta misiñolarien laguntzaille, kristiñauen arimak iratzarri ta biztuteko. Eleiza, eskola ta hospital guztietara sarta izan da misiñoa. Bear-bere bai. Mundua geroago ta geiago jausten da kontuan, bere tzako geratu jakon itxaropen bakarra,



samesak

Plazako bazter batean, autu luzean ikusi ditut gizon bi. Nortzuk? eta, bata Txomin, an bertan denda zabal ederra daukana; eta bestea, Urizargoiko basetxean bada ba, gizon patxadazkoa? Ba, berbera, Peru esan-giña.

Jakinguraz jarri nabe gizonok, eta isil-isilik euren ondotxura joan natxake. Auxe iñoan Txomin-ek ni euren alboña naizanean.

—Errien arteko adiskidetasuna, ezta gero auntzaren gaberdiko ez-tula.

—Bai, erriak alkarren adiskide izateko, geu gizonok izan bearko lenago.

—Ezta ez, gauza erreza.

—Ez, zuek kaletarrok beti zaree gu baserritarren kontrako.

—Olakorik, ointxe esan dozu egi galanta! —zirantsan Txomin-ek, barre karkaxa zabal egiñaz—. Gu baserri ingurura ezkerok, laster dakizue zuek esaten: «Bai, ointxe be, kaletar txankameok ezer onik ba ete dakarre, gero?»

—Adiskidea! Txikitan jakin ez oi dan gorabera asko, jakin oi da geroago.

—Ezta guzurrea ori be. Ba, leen esan deutsudan lez, orain erri aundien artean, zera, zingo aundiko batzarren bat egin bear ei dabe; arako... alto nivel deritxena.

—Aitu ni be! Bai, naikoa asi giñean-ta, luzatu bearrrik ezto-gu gei-ago, guk beñe-pein.

—Zuek baserritarrok, antziñeko eran zabiltze oraindiño gauza askotan. Bateko iaiak, besteko atxur ta kakoak... Erri aundietan gauza asko, makiñen bitartez egiten ditue; beiak curak cratsi bere bai.

—Beiak erastea, elitzateke ganzarik gaitxena izango... errapeak ondo beteak euki ezketiño.

—Ai, au da Peru! Zure ideko Peru Abarkaren tertzioan ba-dakizu zuk bere...

—Bearko jakin. Lanari iges egitea, guz-

tiontzat izango litzateke gustokoa: baiña ekin egin bear, jango bada...

—Guk dendariok be, ba dogu naikoa clo-rriio. Beti gauzak gora eta gora, eia cros-leak beti asarreka.

—Baiña crosleak dendara datozen bitar-tean, dendariak nasai lo egiten dabe.

—Ez gero pentsau be egin, dendara dato-zan guztiak fiñean emoten dabenik daroenaren ordaiña. Bai zera! Ba-dagoz bazterretan egon... zelako gibelak, baiña!

—Baserritarren artean, ezta, orraitio, olan-gorik jazoko.

—Zuen artean bere, ez uste izan, gauzak lengo bestean dabiltzanik. Ez al dakizu gaur eskuarte ugaria bear dana, bai jazteko, bai jateko, bai... batera ta bestera ibilteko? Ara: nik, ogei urte bete nituan arte, Bilbo-rik ikusi bere ez neban egin... erretratuan izan ezik. Eta oraingoak zer? Oraingoak... dendak sarratuta dagozan egunean bere, Bil-bora joaten dakie: partidua dala, zine na-barmentxua dala, dantzaleku andiagoen gu-raz dagozaia, eta...

—Bai, gu bere, amaika bidar bolaka ibili izan oi giñan, emendik urten be egin barik. Orain, etxagok olako kouturik. Orain, oin bikorik gitxi yagok, egon be. Edozeñek dauko bere txirringutsa, edo Vespa... ba-daezpada.

—Alperrik erriko abadeak beste gauzarik esan: jai-eguna ezkerok, eurrezean gazteak erritik urrun, eta erioju barik ganera, mut-il, erioju barik. Sarritan... etxera orduan, illuntzea dala uste izan, eta orra ba! egun-sentia, gizon, egunsentia!

—Ta zeriako soiñuak eta zeriako kantak! Nik iñoiz, radiotik entzuten ditut batzuk, eta, ene bada! Lengo batean, kristiñau ant-zik bere ez eukan baten kantea zai-ta-ta egon nintzan, konkortuta muti! zelan edo alan akabauko ete zan-ta.

—Korkotxen bat edo besobakoren bat eto zalakoan?

—Nik bere orixe pentsau neban. Baiña, azkenerako, edozer eukan, mutil. Onela asten zan kantea: «Tienes ojos, tienes labios...» Zer gura ta axe...!

—Lotsarik?

—Orixe ez neuskizu esango. Ganera, oingo gazteak... bear bere ez ei dabe lotsarik, ez neurririk, ez... eriojurik.

—Orreek bere; zaartuko dituk, eta orduan asiko ditut gazteai lotsea eskatzen... eurek iñoiz emon ez-ta...!

* * *

Barregura aundiaz egon nintzan Peru-ren eta Txomin-en kontuak entzuten. baiña azkenerako, neu bere, buru-austetan jarri ninduen.

Oraingo gazteak!... Oneek uste dabe euren aurretikoak guztiz tentelak izan zireala. Eta aurkitu dogunik geiena, ack emon eta itxi deuskuena izan, barriz!

ERKIAGA E.

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskriizioa: 12 peseta

5 garren orritik dator

kristiñau bizitzea dala. Italia-ko komunistak, Monseñor Montini dauke orain, Aita Santuaren urrengo, euren areririk aundientzat. Eta eleziñoak prepartan dabillega bota deutse aurpegira.

ABERASTU ZURE

EUSKERE A

Ona emen, ille onelako ANAITASUNA-n agertzen direan berba, bätzuk, bearbada zuk ez dakizuzanak:

ABESTI, kantua (berba barria)

ALAITASUN, poztasuna, alegantzia (Gipuzkoako berbea)

AUTU, konversaziñoa

BARATZ, ortua (Gipuzkoan erabilten da)

ELORRIO, naibagea, esturasuna, atsekabea

ESANGIN, obedientea

ESKUARTE, zerbait egiteko medioak

ETORKIZUN, etorriko dan demporea, erderazko *porvenir*

GALDETU, preguntatu, itaundu (Gipuzkoan erabilten da)

GERTATU, pasatu, jazo (beste dialektuetako berbea)

JAZOERA, gertaera, pasetan dan gauzea, erderazko *suceso*

IDEKO, bardiña, iguala

IGES EGIN, eskapatu, erderazko *huir*

KORKOTX, konkortia, jiboa daukona

LEBER, abilla (Bizkaiko berbea, Bermeo aldean esaten dana)

NORTASUN, personalidadea (berba barria, neologismoa)

NORBÈREKERI, egoismoa (neologismoa)


OIARTZUN, arribizia, erderazko *eco*

PLEITU, auzia

TERTZIO, sasoia, demporea

URI, erria

ZINGO, sakona, ondoa (Lekeition erabilten da)



AASTE - BORRASTE

ORI DOK GANADUA!

Axola basetxeko ugazabak anuntzio auxe jarri eban egunoroko baten: "Gure kortan abere larregi daukaguz, eta onecek salduko geunkez: Mando bat, txarri bi eta bizikleta bat."

Eta nik diñot: Bizikletea ze ganadu modu ete dok?

METODU BARRIA

Kosnoaga mendi bizkarrean bizi dan Josanton-ek, pianu eder bat erosi, eta bere baserri etxean sartu dau. Bere ezagun guztien itauna auxe da: Zetarako gura ete jok Josanton-ek tramankulu ori? Baiña berak laster bete deusku gure jakingurea, esanaz: "Ara! nik beiai esne erasten diardudan bitartean, neure emazteak eta neure semeak, txandaka, pianu joten ekiten deutse (ots eragiten beintzat, joten batak ez besteak ezta-ki-ta), eta beiai esnea oso ugarituten jake. Pianu soñurik entzun ezean, barriz, iturri guztiak laster agortuten dira."

Ba-dakizu ba, baserritar adiskidea, zelan beiai esnea geitu.

KIRTEN TA ERDI

Gure *Txotxo Kirten*-ek bei bi eta burdia daukoz. Eta buztartu eta azpigarri hilla basora joan da. Baiña lanerako berotxu be ba-cgoala-ta, oraindiño goizetixu be ba-zala-ta, pago, tantaiplean etzun eta lo gozotan ordu bi inguru igaro ditu. Itzartu danean, bere aurrean burdia baiño ez egoan. Larregi estutu ez naibagetu barik, oldozkor (pentse-

tan) jarri eta berekutan diño: "Ni, Txotxo Kirten nok edo enok. Txotxo Kirten banok, bei bi ostu jeusticzak, eta galdu joataz; baiña Txotxo Kirten ezpanok, burdi bat irabazi joat."

Txotxo, kirten da erdi be ba-az i, ikusten dogunez.

IRABAZI GALANTA

Orain urte batzuk dirala, gure erriko botikan andratxu batek zeozer erosi eta ordaingarrizat peseta biko bat eta bost txakur andi emon ditu. Eguerdian botikarioaren emazteak diru kaixea aztertu dabenean, ikusi peseta biko eta diñotso senarrari:

Baiña, Jose, peseta biko au paltsua da!


—E? Paltsua? Etxaramon, andrea; oindiño paltso ta guzti bere, errial bat irabazi dogu.

Ezta irabazi txarra! Orraitiño orduan bere...:

«*Amarrean saldu, bederatzi irabazi: Euneko zenbat ete dok ori?*»

MONAGILLOEN GAUZAK

Ordurik ona urte batzuk igaro dira baiña, zertzeladea polita da-ta, ipiñi daigun: Bilboko errevista baten erretratu polit polit bat ikusi neban. Bertan eleizmutil bi, monaguillo bi agertzen ziran. organuan jezarrita, eta bietarik nagusitxuenak esaten eutsan txikiñenari: "Ara, oneek tekla zuriok bateoetarako dozak; eta oneek baltzok, barriz, enterruetarako."



EMAKUMEAREN TZAKO

Geiago ta obeto lo egin

Sarri askotan, ordubete geiago lo egiteak gozatuko deutzu zeure karakter lior ori.

Ordubetexu geiago lo egingo bazendu, ez ziñakez ibiliko orrako zeure arpegi luze ta mustur oker orregaz. Ez zenduke katua jaurtiko ostikoaren punteagaz. Ez zenduke atea itxiko dumbadaka. Ez zenduke etxe guztia tristurazko gerizpe baten ipiniko.

Etxean zoriona ta poza, alaitasuna ta ba-kea ikusi gura badozuz, ordubete geiago lo egin.

Ordubete geiago! Bear dan beste ezin danean!

Bai. Bear bada, laguntxuren bat ez yatsu faltako esango deutsuna: Zegaitik ez dozu artzen alako edo olako pastilla bat? Zeuk gura ez dozula be lo egingo dozu.

Eta tentaziñoan jausi zara. Bazoaz farma-ziara..., eta urrengo gaubean aingerutxu baten lez lo egin dozu. Bigarrenean hardin. Irugarrenean, tira, ez ain txarto.

Baiña zeinbat eta sarriago artu, aiubat efektu giñiagi egiten deutsu pastilleak. Eta gero, baten lekuan, bi artu bear, alanda guztiz bere lo ondo ez egiteko; eta goizean nekatuta jagiten zara, baiña zeure pastilla-txuak ezin itxi, ta geroago ta dosis andiagi-ak artu bear.

Kontuz ibilli zait! Zeure *somniferuokaz* verenua sartzen dozu odolean, eta osasuna ta bizia bera peligru andian ipinten zabiltz. Mediku on batek ez deutsu orretarako kon-tsejurik emongo. Ondo lo egiteko medizi-

narik onena auxe izango dozu: Zeure ner-vioen eta buruaren jabe izan zait! Pa-zientzia apur bat bearko dozu zeure bizikerea atondu ta konpondu, zeure orduak jagon, eta gauza bakotxa bere sasoiaren eta lekuan egiteko. Galdu dituzun loak alantxe irabaziko dozuz barriro.

Eta begira! Emen esango deutsudazan gauzak ez dira txantxetan ipiñiak izango, ez iñoren lepotik barre egiteko:

- 1.—Goizetik eta gitxi afaldu.
- 2.—Zoz lotara beti ordu baten.
- 3.—Ez joan lotara digestiñua apur bat aurreratu barik.
- 4.—Lotara baiño lenago baiño epel bat artu.
- 5.—Lotara baiño lenago, zeure oraziño-txuak eginda, zeure ogerako soiñekoa jant-zita, egizu zeurekutan kartoizko ta tra-puzko muñeka bat zareala, eta gero, jau-si zait bearen ganera, ta iru lau minu-tuan etzanik egon zait ardura guztiak ken-duta... Orain pentsa egizu patata zaku bat zareala... ondoan zulo andi bategaz, zu-lotik urten deutsuez patata guztiak eta utsi-tu egin zara...

Gelako leioa zabal zabalik itxi. Zoz ogera.

Besterik ez.

—Gau on!

—Jainkoak emon!



Balentin Berrio-otxoa Doatsuaren Kartak

V

Neure ama maitia (1):

Ia predikadore baten legez eskribietan ikasi dan.

Berorren kartan aitnten emoten denst, Jaungoikoaren vorondatiagaz konforme daguala, beretzat ni gura banau erreligiñuan. Asko alegretan naiz; bada jakin biar dau, baldin da biotz biotzetik eskeintzen badeutsa berorren semia, Mariya bitarteko ipiñita; mundu onetan egin al deiyan Jaunaren obra gustosuna egingo dabela uste dot.

Eskatu beiyo profesa etorri baiño lenago cuki deirala (2) aziertu on bat, eta aurrera; ez gaitian Jaungoikuaz urri ibilli; zeruan leku zabalak daukaz guretzat, lurrian bere vorondatia egiten badogu.

Animo, asko valiyo daben gauzia asko kostefan da.

Domketan biyua Santanako konventura, eta Aita Santo Domingoren oiñetan auspaztuta, esan beyo: Aita Santo Domingo, seme bat baiño eztaukat, eta bera guttiz maitia; baiña zeuretzat gura badozu, zeuria dozu; bakar bakarrik eskatuten deusut, zeure egiyazko seme bat egin deizula, eta izan zaitiala neure aita, bere bizitzan eta eriotzan

alkar ikusi daigun zu zagozan lekuan. Amen. Alan izan dedilla, ama.

Logroñuko zaldun txikiyen aitag pagau custan diligentziya Madrierañio; eta orregaitik iñoizko demporan ortik pasauko balira baiñuetara, alegrauko mintzake, berakaz kumpliduko baleu, bada nik merezi ezpadotbere, arek merezi dau, berorren seme bati alako graziya egin eutsalako.

Agur, ama Mariya.

Frailleko (3) bat dago semia, kasik edurra lango juntzi zuriyaz.

Valentin Berrio-Otxoak

VI

Amatxo (4):

Berorri gusto emotiarren artu dot plumia, kartia itxita gero, lau verba baiño ezpada be esateko, alperrik zeregin aundiya euki (5).

Emen gizon santuen erdiyan arkitzen naiz; gau eta egun Jaungoikoa alabetan dagoz; gaberdian bein baiño sarriyago jaiki dira maitiñak kantetan eta Aingeruen ofiziyua egiten, eta berorren sabeleko seme bat-bere bai berakin batian.

Ai, ama, zer zoriyoneko gaberdia arek! Berori lo eguan demporan, berorren semia Jaungoikuari erregututen eguan. Amatxo, aserre ala adiskide gera? Ni beintzat adiskide naz, berorregaz.

Santa Monikaz meza bat esan neutsan, eta ez neuke gura azkena izan dedin.

Agur, ama. Semetxo bat zeruan dauka beti erregututen berorregaitik; triste daguanian, deadar egin beiyo, eta bitartekotzat artu bei bere erreguetan. Euki deigun konfiantza andi bat zeruan guztiok alkar ikusiko gariala. Araxe ekarriko deusadez Indiyetatik erregalutxo batzuk.

Agur.

Valentiñek

- (1) Ocaña'tik, 1854-ko asikeran idatzia.
- (2) Daidala.
- (3) Frailletxu.
- (4) Ocaña'tik, 1854-ko maiatzean.
- (5) Zeregin aundiak eukiarren.